

Jesus Lete 'Ibai-Ertz' bertsolari eta esatari itsasondoarra zendu da

Hileta elizkizuna gaur izango da, jaioterriko Jasokundeko elizan, 18:00etan

Montse Arregi / Bilbo

Jesus Lete Sarasola Ibai-Ertz bertsolaria atzo hil zen, gaixoaldi baten ostean. Esatari eta idazlea gaur agurtuko dute familiar-tekoek eta lagunek, Itsasondoko Jasokundeko Andre Mariaren elizan, arratsaldeko 18:00-etan egingo diren hileta elizkizunetan. Euskaltzalea, hiztuna eta zirikatzailea, umorerik ez zuen inoiz galdu. 1994ko Bertsolari Egunean omendu zuten.

BERTSOPAPER ugari idatzitakoa zen Jesus Lete *Ibai-Ertz*. Ez zen bat-bateko bertsolaria izan, baina herriz herri gaijartzaile gisa hamai-ka kilometro egin zituen urteetan, Mari Karmen Azpiazu emaztea lagun. Azken aldian makal samar zebilen Lete, pneumoniarekin, baina sendatuta zegoela uste izan zuenean, herenegun txarrera egin zuen. Bertso idatziak eta Auspoarekin argitaratutako *Orrela ziran gauzak* liburua dira, besteak beste, hark utzitako ondarea. Hileta elizkizunak gaur izango dira Itsasondoko Jasokundeko Andre Mariaren elizan, 18:00etan.

Ibai-Ertz 1921eko abuztuaren 27an jaio zen, Itsasondon. Oria ibaiaren aldamenean zen etxe batean jaio zen, eta ibai beraren ertzean den etxe batean bizi izan zenez, Letek *Ibai-Ertz* izengoitia hartu zuen. Hala sinatzen zituen bere bertso idatziak eta bestelako testuak ere.

Itsasondoko gertakarien



LEIRE ARZUAGA

Jesus Lete *Ibai-Ertz* bertsolaria, bere etxean, Itsasondon, 1992an.

JOSE MARI IRIONDO

■ ■ ■ *«Ibai-Ertz oso hiztuna zen, gauza asko jakitea gustatzen zitzaion, galdetzea, berak kontatzea... Adar-jotzailea zen, gustuko zuen aldamenekoak zirikatzea»*

bilduma egin zuen *Orrela ziran gauzak* liburuan. Hitzaurrean Antonio Zabalak gogorarazten duenez, «oso euskararen maitale» izan zen

beti Lete. Aita Zabalaren hitzetan, «herdoirik gabeko mingaina» zuen.

Iritzi berekoa da Jose Mari Iriondo ere. «Oso hiztuna

zen, gauza asko jakitea gustatzen zitzaion, galdetu, esan... Adar-jotzailea zen, zirikatzailea», adierazi zigun atzo.

Loiolako Herri Irratian 60ko hamarkadaren hasieran antolatzen hasi ziren gazteentzako bertso sariketan aholkulari izan zuen Iriondok Ibai-Ertz, eta finalean epaimahaikide, Patxi Barbero, Inozentzio Olea, Eusebio Eizmendi *Txapel* eta Antonio Zabalarekin batera.

Gaur egungo bertsolaritzari buruz

■ JESUS LETE *Ibai-Ertz* 1994ko Bertsolari Egunean omendu zuten, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, beste zortzi lagunekin batera.

EGUNKARIAk berarekin hiz egin zuen orduan, eta egungo eta lehengo bertsolaritzaren aldeak azaldu zizkigun. «Oraingo bertsolaritzan, txapelketetan batez ere, bertso luzeak kantatzen dituzte; lehen ez zen hala izaten. Lehen bertsoak lau puntukoak ziren, eta bosteko bat kantatuz gero ohituratik kanpo izaten zen. Eta doinu bati —*Mutil koskor bat...* esaterako— bariazio asko ematen zitzaizkion».

Kronikagile ere izan zen Ibai-Ertz. Gipuzkoako egunkari batean jaioterriari buruzko eta herritarren inguruko idatziak argitaratu zituen. Horiek liburu batean argitaratzea proposatu zion Antonio Zabalak. Emaizta *Orrela ziran gauzak* bere liburu bakarra izan zen.

Idazten «oso euskara ederra» zuela gogorarazi zuen Iriondok. Esatari modura ere aritu zen, gazta txapelketeta eta txirrindulari lasterketan. Iriondoren hitzetan, «Ordiziako Santio eguneko txirrindulari lasterketa famatuan ere esatari lanean ezagutu nuen. Lasterketaren atzeko autotik *speaker* lanak egiten zituen. Oso hizlari egokia zen, euskaraz zein gaztelaniaz. Ordiziako Euskal Astean ere maiz aritutakoa zen, bertso saioan gaijartzaile edota gazta lehiaketan aurkezle».

Aulki gurpildunean zebilen aspaldian, txikitan polio gaitza izan baitzuen.

IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

31 x 33 mm

31 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 2.900
Astea (6 egun): 2.200
2 aste (12 egun): 2.000
Hilabetea: (24 egun): 1.400

NAIROBITARRA



Otsailaren 19tik
martxoaren 12ra

Peru
eta
Bolivia

Cuzco, Machu Pichu, Titicaca...
hainbeste aldiz entzundako
lekuak ezagutzera.

Talde txikia
283.000 pta.

banoa

94 424 00 11



OSTIELA! ALDIZKARIAREN 16. ZENBAKIA KALEAN!

Kultur hiru-hilabetekari "haizeberritu, ezohizko eta ilelagari" honen gai nagusia: PRESOKAK eta, batipat, EUSKAL PRESOKAK. Beti jakin nahi izan zenuena eta galdetzeraz auzartu ez zinen: "Kanpoko Senideak eta barruko borroka" (azken hamarkadetakoa historiako), tortura testigantza latzak, "Euskara ere giltzapean" eta "Ialgi dadiia bere entzerrutik", Sarriren gartzelako poemak, alternatibak gartzelari, "Nor bait hegaldatu zen kuku-kabiaren gainetik", literatura eta errealitatea... Koldo Izagirre, Mixel Sarasketa, Brendan Behan, Axier Mujika, Josu Lartategi, Gari Berasaluze, Mikel Aramendi, Jon Arano, Harkaitz Cano, Koldo Garmendia, "Forki", Koldo Biguri, Uzkian Pot, e.a.-en artikulak.

Abixua "presondegiko okel" izan litekeen euskal irakurleari: Barre egizu, dardar egin ostean!

Merke-merke, 400 pzeta.-n salgai E.H. osoko liburutegia eta kioskoetan. Urteko harpidetza (4 ale) 1.600 pza. Eska ezazu Ordiziako 131 p.k.-ra edo deitu (edo idatzi) 943-161835 tfno./faxera. ostiela@autovia.com